

## Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako enpresetako zuzendarien gaitasuna sustatu nahi du

**Donostia - 2015ko Irailaren 21a** - Gipuzkoako Bazkondeak "Zuzendaritza Garapen Programa" ren edizio berri bat jarriko du martxan Gipuzkoako enpresetako zuzendarien eta taldeetako arduradunen pertsonak zuzentzeko gaitasuna sustatzeko helburuarekin.

Aurten 14. edizioa burutuko da, urriaren 16an hasiko da eta apirilaren 16an amaituko da. Prestakuntzak irauten duen bitartean zuzendaritzaren gaitasunak garatuko dira, hala nola, lidergotzaren gaitasuna, talde lana, motibazioa, komunikazioa, denboraren kudeaketa eta jende aurrean hitz egitea, enpresa eta zuzendaritza alorrean eman diren aldaketen ikuspegi global batetik. Hausnarketa partekatua eta ideien hartu-emanen errazten duen ingurune batean lan egingo da eta helburu eta ekintza planekin lan egitera erakutsiko zaie, emaitza eraginkorrak lortu ahal izateko. Hau guztia, lan taldeak eraginkortasunez lan egiteko erabili daitezkeen teknika berrieenekin probatuz eta trebatuz.

Gaur egun asko dira euren unibertsite prestakuntzan eraginkortasun tekniko handia lortu duten pertsonak, ingeneri azkarrak dira, kimikoak, fisikoak edo eta abokatuak, baina behin lanean hasita denbora gehiena pertsonak kudeatzen ematen dute, euren lan taldea proiektuan barneratua eta motibatua egon dadin. Horregatik oso garrantzitsua da euren zuzendaritza garapenean laguntzea, batez ere pertsonen eta taldeen zuzendaritzarekin eta lidergotzarekin zer ikusia duenarekin.

Hain arrakastatsuak izan diren aurreko 13 ediziotan, 300 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute, horein artean Gipuzkoako enpresetako Arloetako Zuzendariak, Departamendu Zuzendariak eta Erdi Mailako Arduradunak.

Esteka honetan <https://vimeo.com/139951572> Donostiako Akting enpresako zuzendarien esperientzia ezagutu daiteke, eta hilaren 23an berriz, Zuzendaritza Garapen Programaren xehetasun guztiak ezagutzeko saio informatibo bat egingo da.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irene Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347